

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foru Gobernua Nafarroaren zaindariaren ohorez egindako elizkizunean izan da, Xabierren

Nafarroako banda eta abesbatzek aldi berean emandako 83 kontzertuk eta beste herrialde batzuetako elkarteen folklore-jaialdi batek osatu dituzte Nafarroaren Egunaren ekitaldiak

Miércoles, 03 de diciembre de 2014

Nafarroako Gobernuak, Yolanda Barcina Lehendakaria buru zela, San Frantzisko Xabier Foru Komunitateko zaindariaren ospakizuna dela - Xabierko basilikan gaur egindako elizkizunean parte hartu du. Haren heriotzaren 462. urteurrena bete da, eta elizkizuna Francisco Pérez Iruñeko artzapezpiku eta Tuterako gotzainak eman du.

Meza 09:45ean hasi da Foru Gobernuko kideak bertan zirela: Nafarroako Parlamentuko lehendakari Alberto Catalán; Nafarroako Gobernuko ordezkari Carmen Alba; eta Xabierko alkate María José Guindano, beste agintari batzuen artean. Tradizioak agintarien segizioa basilikan sartu da arma-erregea eta mazolariak aurretik zirela. Sarreran nahiz irteeran, Nafarroaren Ereserkia interpretatu da, "Erreinurako sarrerarako Martxa" izeneko musika-konposizioa.

Mezan, Iruñeko artzapezpikuak San Frantzisko Xabierren bizitza eta obrari buruz hitz egin du, haren karitatezko obrak eta besteentzat lan egin izana azpimarratuz. Francisco Pérezek Francisco aita santuak duela egun gutxi Europako Parlamentuan, Estrasburgon, emandako diskurtsoa ere aipatu du. "Beldurra urrundu" eta beharra dutenei laguntzeko eskatu zuen, eta gure gizarteak "maitasunaren zibilizazio" bat behar duela. Gainera, artzapezpikuak iragarri du Vatikanoko Xabierkoaren Urtea eman duela



Nafarroako Gobernuak Xabierko Gazteluko basilikatik ateratzen, mazolariak aurrean dituztela.

2015ean Xabieraldien 75. urteurrena ospatzen dela eta

Musika-emanaldiak

Programatutako musika-emanaldiei dagokienez, 12:30ean, Burlatako kultur etxeak Nafarroako beste herrialde batzuetako elkarteetako folklore-jaialdia hartu du. Zehazki, Ekuador, Nikaragua, Errusia, Kolonbia, Nigeria, Peru eta Argentinako taldeak aritu dira.

13:00ean (Iruñeako Misericordia Etxeko salbu, 12:00etan izan dena), doako 83 kontzertu hasi dira aldi berean, Nafarroako beste hainbat abesbatza eta musika-banden eskutik. Nafarroaren Ereserkiarekin hasi dira eta jarraina beren berariazko programak interpretatu dituzte.

Aurtengo berrikuntza da kontzertu liriko bat programatu dela San Jorgeko Civivoxen (Iruña). Han, lau bakarlarik, Andrea Jiménez sopranoak, Leticia Vergara mezzosopranoak, Eduardo Zubicoa tenoreak eta Pablo Azpeitia baritonoak, Daniel Gutiérrezz piano-jotzaileak lagunduta eta Óscar Salvoch narratzailea izanik, Nafarroari lotutako opera eta zarzuelen piezak interpretatu dituzte.

Guztira, kontzertuetan 3.340 artistak parte hartuko dute.

Azkenik, ekitaldi ofizialen artean, abenduaren 15ean, astelehenarekin, Nafarroaren Eguna ospatuko da Madrilen, eta bertan izango da Barcina Lehendakaria. Ekitaldia 20:00etan hasiko da Lázaro Galdiano fundazioaren auditorioan, han Lehendakariak ohiko harrera egingo die Madrilen bizi diren politika, enpresa eta arteetako ordezkari nafarrei, eta Frantzisko Xabier Saria banatuko du.



Barcina Lehendakaria, elizkizunean.

Galería de fotos



Xabierko basilika, elizkizunean.



Nafarroako Gobernuako kontseilariak, eukaristian.



Nafarroako Nazioen Jaialdiko antolatzaileak eta bertaratutako jendea.



Burlatako Jaialdian parte hartutako taldeetako bat.



Gazte-talde baten emanaldia.



Luis Morondo Musika Eskolako Banda Gazteak Barañaingo auditorioan parte hartu du.